



Arroilen Interpretazio
Zentroa - Irunberri

1. ALDIZKARIA

2015eko iraila

ARGITARATU:

Landa Garapeneko,
Ingurumeneko eta Toki
Administratzioko

KOORDINAZIO::

Ingurumen Hezkuntza eta
Informazio Saila

HARPIDETZA:

cinlumbi@navarra.es
948 88 08 74



Iratiren Natur Bidea. Egilea: ML Ilundain

1. or.- Jarduerak

2015EKO UDAKO JARDUERAK
EKODENBORAPASA: LETRA-ZOPA

2. or.- Naturaren Zaintza

BONELLI ARRANOA IRUNBERRIN, LEIREN ETA ARBAIUNEN DA BERRIRO

4. or.- Gure jendea eta bere bizimodua

ANDREA SORLI; IRUNBERRIKO ARROILAKO ZINDARIA

5. or.- Turismo eta kultur ondarea

IRATIREN NATUR BIDEA; GERO ETA HULBILAGO DEN ERREALITATEA

6. or.- Eskola jasangarria

2014/2015 IKASTURTEA HERRIETAKO IKASTETXEEKIN

Jarduerak eta Zerbitzuak

JARDUERAK

HAURRENTZAKO LANTEGIAK:

Aurreko urteetan bezala, Arroilen Interpretazio Zentroak bi lantegi tematiko proposatu ditu udan. 7 eta 12 urte arteko haurrentzat izan dira, eta aukera izan da euskaraz edo gaztelaniaz egiteko. Lehendabizikoa Uraren Zikloari eta baliabide horren erabilera egokiari buruzkoa izan da; bigarrena, birziklatze lantegia izan da, eskulanak landu dituena.

Bi lantegietan josteta eta ikasketa bateratzen zituzten jarduerak zeuden.

UDAKO JARDUERAK ARROILETAN:


Bisitariek eta bertako jendeak oso harrera ona egin diete udan antolatu diren jarduerari. Uztailean eta abuztuan honako hauek antolatu dira: hegazti behaketak Arbaiungo eta Irunberriko arroiletan, bisita gidatuak Interpretazio Zentrora, bisita gidatuak Benasako arroilara (Otsagabiko Naturaren Interpretazio Zentroak antolatua) eta prismatikoak alokatzeko zerbitzua eman da. Badira urte batzuk jarduera horiek abian daudela; haien bidez, gonbit egiten zaie arroiletako bisitariei bertan bizi diren hegaztiak hobeki ezagutzera eta naturagune horien balioak deskubritzera.



Hegaztiei teleskopioz behatzen.
Egilea: Andrea Sorli

EKODENBORPASA

Arroilen inguruari
erlazonaturiko 7 hitzak
aurki itzazu



Testuak: Amaia Tabar (Arroilen IZ)

A	L	I	M	S	A	I	Z	U	R	I	A	D	S	D
R	E	A	U	Y	A	O	D	F	H	J	O	L	F	A
A	G	D	I	A	R	R	O	I	L	A	O	L	A	I
N	H	U	C	K	P	T	R	A	F	I	K	I	A	Z
G	L	I	M	A	N	T	O	R	A	F	I	K	F	A
O	O	N	I	L	K	A	S	L	T	I	L	R	K	U
I	Y	S	A	T	I	J	L	P	I	T	L	U	L	Y
T	Q	A	P	Z	V	U	K	U	O	I	L	A	U	I
I	S	R	U	A	S	D	G	T	L	A	S	D	Y	D
T	A	A	G	R	I	O	A	R	B	A	I	U	N	T
P	U	T	I	A	A	U	A	E	P	E	P	I	N	H
I	P	A	R	I	Y	N	M	A	F	L	U	P	K	F
T	I	R	A	T	I	B	I	Z	I	S	E	R	I	D
N	Ñ	Y	I	Z	B	R	A	T	Y	J	O	L	P	E
F	L	H	U	U	X	C	V	E	E	D	A	O	B	T

Naturaren Zaintza

BONELLI ARRANOAK IRUNBERRIN, LEIREN ETA ARBAIUNEN DA BERRIRO

Bonelli arranoa galzorian dago katalogatuta Nafarroan 90eko hamarkadatik, orduan lurralde gehienetatik desagertua baitzegoen, bai eta Leireko mendilerrotik eta Arbaiungo arroilatik ere. Hilkortasun handia izan zuen 70-80eko hamarkadetan eta ugaltze tasa oso txikia; hori dela-eta Nafarroako Gobernuak neurriak hartu behar izan zituen haren populazioak Nafarroan iraun zezan.

Horregatik onetsi zen espeziea ugaltzeko plana, eta hasi zen zenbait neurri hartzen, bai sentsibilizaziokoak haren jazarpena murrizteko, bai linea elektrikoak moldatzekoak. Baina ahaleginak ez ziren nahikoa izan eta badira hamar urte baino gehiago Bonelli arranoa ez dela Nafarroan umatzen.

Horregatik aukeratu da populazioa indartzea, espeziea gatibualdian hazteko programak abiatuta eta habitata hobetzeko beste neurri batzuk hartuta. Lan horiei **LIFE BONELLI (2013-2017)** proiektuaren bidez heltzen ari zaie; proiektu horrek Europar Batasunaren finantzaketa du **eta Bonelli arranoaren populazioa bultzatzea du helburu indartze programen bidez Madrilan, Araban eta Nafarroan, eta berrezartze programen bidez Mallorcan, habitata hobetzeko eta hilkortasun arrazoiak gutxitzeko neurriekin batera.**

Nafarroan, Galipentzuko eta Irunberriko inguruak egokitzen ematen dira LIFE BONELLIn ekintzak burutzeko; izan ere, espeziearen antzinako lurraldeak dira eta oso habitat egokiak ugaltzeko, harkaitzak, sastrakadi mediterranea eta laboreak daudelako.

Galipentzu inguruan 7 txita Bonelli arrano sartu dira: bi 2011n, bi 2012an eta hiru 2014an; guztiak markatuta, satelitez hobeki jarraitzeko. 2015ean 5 txita gehiago sartu dira, baina oraingoan Irunberrin. Gaur arte, beraz, **guztira 12 txita arrano Bonelli sartu dira Nafarroan hacking edo landa hazkuntza bidez.**

Txiten hilkortasun tasa oso handia da bizitzaren lehen faseetan gainditu behar dituzten zailtasunengatik. Iaz Nafarroan sartutako 7 txiten bilakaerak itxaropena pizten duten emaitzak erakusten ditu; izan ere, nahiz ale batzuen heriotza egiaztatua dagoen, gainerakoek ilusioa mantentzen dute prozesu delikatu eta korapilatsu honetan.

Filabres, Galipentzun 2014an askatu zen emea Araba, Burgos eta Errioxa arteko lurralde batean dago lokalizatua. Eta 3-4 urte bete arte bere sexu heldutasunera iritsiko ez bada ere, ar heldu batekin habia moldatzen ikusi dute.



Bonelli arranoak Nafarroan ugaltzeko dituen lurralde historiko nagusiak **Natura 2000 Sarea izeneko Europako sare ekologikoan sartuta daude.**

Hacking edo landa hazkuntza izeneko sistemak Bonelli arranoak hazteko prozesu naturalaren xehetasun txikiena ere imitatzen du.

Aurten Irunberrin sartutako txitak sakabanatze fasean daude orain. Nafarroako Gobernuko landazainek eta teknikariek, Nafarroako Ingurumen Kudeaketakoek eta kanpoko laguntzaileek egin dute prozesuaren lehen fase hauen jarraipena.

- 2015eko maiatzaren 26an hiru animalia iritsi ziren: Artois, Babil eta Sielva.
- Ekainaren 1ean beste bi txita iritsi ziren: Ardenne eta Craonne. Bost txitak habiaren lana egiten duen kaiola handi batean sartu ziren.
- Ekainaren 8an ireki zen kaiola. Etapa horretan, Fauna Sendatzeko Ilundaingo Zentrora eraman zen Babil, ez baitzen gauza ingurunera egokitzeko.
- Artois, Ardenne, Craonne eta Sielva batez ere Piedrako eta San Adriango Natur Erreserban barrena, Irunberrin, mugitu dira hegan egiten ikasteko eta lurraldea sai arreetatik, miru gorri eta beltzetatik edo belatzetatik defenditzeko. Gero sakabanatze mugimenduak egiten hasi dira, nahiz bizpahiru egunetik behin kaiola handira itzultzen diren. Animalia guztiek dute satellite bidezko igorgailu bat, haien nondik-norakoak jakiteko.



Populazioa handitzeaz gain, harrapakinen kopurua handitzeko jarduketak egin dira liberazio guneetan: usategiak eraiki dira, belar-sastrakak garbitu untxi eta eperrak hurbiltzeko, errein eta abar. Horrela espero da azkenik lurralde horietan kokatzea eta umatzea. Jarduketa horietan Irunberriko eta Galipentzuko udalek lagundu dute, bai eta udalerrri horietako ehiztari elkartek eta bertako abeltzainek ere. Ezinbestekoa da gizartearen laguntza proiektu horiek burutu ahal izateko.

Proiektuaren webgunean, www.lifebonelli.org, eskura daiteke informazio interesgarri guztia, eta Arroilen Interpretazio Zentroan laguntza ematen ahal dizute espezie hau hobeki ezagutzeko eta aske nola bizi den behatzeko.



Testua: Equipo LIFE BONELLI (GAN-Gobierno de Navarra)



Gure jendea eta bere bizimodua

ANDREA SORLI

Irunberriko Arroilako basozaina
26 urte · Arbontze

Arroilen hitzarmena lankidetzakordio bat da Nafarroako Gobernuaren eta Irunberriko, Erromantzatuko eta Urraulbeitiko udalen eta Nabaskozeko Kontzejuaren artekoa, Irunberriko, Arbaiungo, Ugarrongo eta Benasako arroilak zaintzeko. Esparru horretan, 1997tik aurrera, arroilek beren zaindariak dituzte turista gehien hurbiltzen diren sasoiarako, eremu horien erabilera publikoa behar bezalakoa izan dadin.

Andrea Sorli da 2015ean Irunberriko arroilako basozaina, eta Benasako arroilakoa izan zen 2014an.

Jendeak Irunberriko arroila bisitatzen duenean, badakite Natur Erreserba batean daudela?, badakite zer den babes figura hori?

Oso desberdina da bisitari bakoitzaren kontzientzia; oro har, balio naturala ederresten dute, baina zailagoa da araudia eta murriztapenak betetzea; adibidez, denek nahi dute arroilan saiak izatea, toki lasaia izan dadila, biodibertsitate handikoa, baina asko dira autoan ezin sartzeaz kexu direnak, edo iristeko erraza eta bainatzeko edo otordu bat egiteko prestatua dagoen toki bat ez izateaz, nahiz horrek ez lukeen aukera emanen egun dugun bezalako balio naturala izateko.

Zergatik da garrantzitsua basozainaren lana?

Zaindariaren figurak ingurunearen balioa eta hura babestu beharra indartzen du. Gainera, haren bidez in situ ematen dira argibideak; esate baterako, bertako faunari, florari edo historiari lotutakoak, informazio edo turismo guneetan ematen denaren osagarri, eta horri esker bisitariak, askotan, arroilaren parte bihurtzen dira, hura bizirik den eremu gisa ulertuta, eta haien kontzientziazioa eta gogobetea indartzen dira.

Zer da gehien gustuko duzuna basozain lanean?

Arroilan etengabe ikasten aritzea dut gustukoan. Toki honetan barietate eta edertasun izugarriak daude, eta begiz ikusten dena maiz ezagutzari lotua dagoenez, ikasi ahala behatzen dut eta horri esker informazio handiagoa ematen ahal diet bisitariari animaliei, landareei, portaerei, zikloei eta harreman konplexuei eta hain ohikoak ez direnei buruz.

Astean behin aukera ematen diezue bisitariari hegaztiak prismatiko eta teleskopio bidez ikusteko; kontaguzuz zer nolako esperientzia den.

Niretzat asteko unerik atseginena da. Esker oneko jarduera da; izan ere, nahiz ia denek dakiten sai arreak eta sai zuriak daudela, oso bestelakoa da teleskopioz hain hurbil ikustea, eta gehienak harritzen dira haien lepoen forma, lumak eta begiak ere hain argi ikustean. Gainera, ale heldu eta gazteen edo sai arre eta zurien tamainak, ohiturak eta hegan daudela bereizteko jarraibide xume batzuei esker, oroitzapen eder batekin eta zerbait gehiago ikasita joaten dira. Orain arte, hegaztiei behatzeko eskainiz gero, denek onartu didate eta nahiz haurrak izaten diren interes gehien agertzen dutenak, helduek asko gozatzen dute eta izan da bizitza osoa saiei begira daraman zaleturen bat harritu egin dena haiek hain hurbil ikusita.

Turismoa eta Kultur Ondarea

IRATIREN NATUR BIDEA; GERO ETA HURBILAGO DEN ERREALITATEA

Aurrera segitzen du Iratiko trenbidearen trazadura zaharra berreskuratzeko proiektuak. Planaren bidez, Iratik Iruña eta Zangoza artean egiten zituen 49 kilometroak natur bide bihurtu nahi dira oinezkoentzat eta txirringularientzat. Iratiren bide berde hau bakarra da Foru Komunitatean berreskuratu eta balioztatu gabe dagoena; aldiz, Plazaola, Tarazonica edo Bidasoa bai, bestek beste.

Bederatzi udal ari dira lanean proiektu honetan; Irunberriko Udalak bultzatu zuen 1994an eta, gaur egun, Eguesibarko, Lizoain-Arriasgoitiko, Urroz-Hiriko, Longidako, Agoizko, Urraulbeitiko, Ledeko eta Zangozako udalen laguntza du.

Foru Gobernuak Udalez gaindiko Plan Zuzentzailea onesteko behin betiko fasean dago proiektua, bide historiko gisa babesteko eta jatorrizko ibilbidearen kontserbazioa bermatzearren. Trazaduraren zati bat, 28.000 m² inguru, ez dago toki entitateen esku; horregatik, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu du behar diren lur desjabetzeak egiteko.

Bestetik, TRAGSA enpresa ari da obrak gauzatzeko proiektua prestatzen. Balorazio honen barrenean azterlan geoteknikoak, geologikoak, topografikoak eta Irunberriko arrolako saguzarren koloniar buruzkoak daude. Baimenak tramitatzen ari dira bidezko erakundeen aurrean.

Horrenbestez, proiektuak finantzaketa bilatuko du Estatuaren eta Europar Batasunaren bidez, Pirinio azpiko Natur Bideko Plan Zuzentzailearen barrenean. Plan horrek Kantauri eta Mediterraneo lotzeko helburua du motorrik gabeko bide baten bitartez. Hegoaldeko ardatz piriniotar bat sortu beharko litzateke eta, Nafarroan, Plazaolaren Natur Bidea, Arga ibai ondoko pasealekua eta Iratiren Natur Bidea lotuko litzuzke. Gainera bide nagusi hori zikloturisten Eurovelorekin lotuko litzateke, Europan barrena doan distantzia luzeko bide sare horrekin.

Iratiko trenbide zaharraren Natur Bidea berreskuratzea proiektu estrategikotzat jotzen da eskualderako, haren bizkarrezur gisa, eta Nafarroako Produktu Turistikoaren Garapenerako Planean sartzen da. Aipatu natur bideekin batera, Iratikoa Done Jakue bideak Nafarroan dituen bi adar nagusiekin lotuko litzateke; alegia, Orreagakoarekin eta Aragoikoarekin. Gainera, zenbait abelbiderekin lotzen da, hala nola, Milagro eta Aezkoa arteko altxonbidearekin eta Erronkarikoarekin.



Iratiren Natur Bidea
Irunberriko arrolan
(Natur Erreserba)
Egilea: ML Ilundain

Testua: Nahia Villanueva (Arroilen IZ)

Iturria: Carlos García Pascual (ADL Cederna)

Eskola Jasangarria

2014/2015 IKASTURTEA HERRIKO IKASTETXEEKIN

Aurreko urteetan bezala, Arroilen Naturaren Interpretazio Zentroak herriko ikastetxeekin egin du lan ikasturte honetan, eta urte bakoitzeko ikasketen curriculumera egokitutako zenbait hezkuntza jarduera burutu ditu. Gai askotarikoak izan dira 2014-2015 ikasturtean San Juan Ikastetxe Publikoarekin eta Arangoiti Ikastolarekin egin direnak.

Azaroan egin dira udazkeneko lantegiak, eta apirilean, maiatzean eta ekainean udaberrikoak. Bestetik, apirilaren 22an ospatu zen Zuhaitzaren Eguna.

Udazkeneko jardueretatik hasita, San Juan Ikastetxe Publikoko ikasleek kontsumo energetikoaren ohitura egokiak landu dituzte test eta jokoan bidez; esate baterako, trivial edo memory bidez. Helduenek ohitura energetiko egokiei buruzko horma-irudi batekin osatu zuten lantegia. Arangoiti ikastolari dagokionez, gaiak desberdinak izan ziren ikasketen mailaren arabera. Horrela, 1. zikloko ikasleek dinosauroei buruzko lantegia egin zuten, eta beren fosilak sortu zituzten. 2. zikloko taldeak Irunberriko herria eta bere landa ingurunea aztertu zituen. Eta helduenek gure eskualdeko geologia eta paisaia landu zuten.

Udaberriarekin batera Zuhaitzaren Eguna ospatu zen. Aurten apirilaren 22a aukeratu zen, eta horretarako tokia, Ahuntzen zubia. Egun hori bi ikastetxeek batera ospatzen dute. Aurten Iván Lakidain Torresen parte-hartzea izan genuen. Bera Nekazaritako ingeniari teknikoa eta Mendi ingeniaria da, Sielba Ingeniería del Medio Rural-ekoa. Berak hartu zuen ardura hitzaldi txiki baterako beren lanbidearen inguruan, eta eskola-umeak animatu zituen basoak natur baliabide eta bizimodu gisa baloratzera. Eguna bukatutakoan, parte-hartzaile guztiek otordu bat izan zuten Irunberriko Udalaren eskutik.

Eta udaberriko lantegi tematikoekin jarraituz, San Juan ikastetxe publikoko haur hezkuntzako taldeak Irunberriko piratei buruzko lantegia egin zuen, eta haien maskotak deskubritu zituen. Aldiz, 1. zikloko taldeak eskualdean aurki ditzakegun paisaiak eta haien loturiko fauna landu zituen, eta zenbait horma-irudi egin. 2. eta 3. zikloko taldeek lantegien bidez ere ikasi zuten, Irunberriko antzinako ogibideak gaitzat hartuta. Irunberriko jendea nola bizi zen ezagutu zuten eta, gero, bizimodu eta ogibide horiek gure herrian izan duten bilakaera baloratu.

Ikastaroa bukatzeko, Arangoiti ikastolako Lehen Hezkuntzako taldeek jardunaldi bat egin zuten Sielvako ingurunean. Txikienek ibai inguruan bizi diren animalia batzuk aztertu zituzten, eta 2. eta 3. zikloko taldeek ibaiari buruzko koaderno bat osatu zuten hainbat jarduerarekin (gure ibaiaren gaineko datuak, arrasto bilaketa, elikagaien katea eta abar). Datorren ikasturtean jarduera horiek eta beste batzuk eginen dira herrietako ikastetxeekin batera; betiere, ingurumen hezkuntza eta gure inguruneko balioak beregana ditzatela helburu izanik.



Testu eta argazkiak:
Nahia Villanueva
(Arroilen IZ)

Arroilen Interpretazio Zentroa Nafarroako Gobernuko Ingurumen Hezkuntzako Zentroen Sarearen ekipamendua da, Pirinio aurreko formazio berezi horietara eskainia.



2000. urtean ireki zenetik, batera betetzen ditu bi eginkizun: ingurumen arloko hezkuntza eta informaziorako ekipamendua eta turistentzako arreta; urtean 11.000 lagunengana iristen da. Gainera, erreferentzia gune da herriko jendearentzat ingurumenari loturiko gaietan.

Aldizkari hau bere tresnetako bat da, arroilei eta haien lurraldeari lotutako ingurumen, kultur eta gizarte alderdiak hedatzeko.

Ordutegia

Negua (Urriaren 13tik martxoaren 31 arte):

Ostiral eta larunbatetan, 10:00etatik 14:00ak arte eta 16:30etik 18:30 arte

Igande eta jaiegunak, 10:00etatik 14:00ak arte

Udaberrian eta udazkenean

(apirilaren 13tik uztailaren 15era, eta abuztuaren 31tik urriaren 12ra):

Asteartetik ostegunera, eta igandeetan, 10:00etatik 14:00ak arte.

Ostiral eta larunbatetan, 10:00etatik 14:00ak arte eta 16:30etik 18:30 arte

Udan (uztailaren 16tik abuztuaren 30a arte):

Asteleheneetik larunbatera, 10:00etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik 19:00ak arte.

Igandeetan, 10:00etatik 14:00ak arte

Taldeentzat, aldez aurretik hitzartu bisita

Arroilen Interpretazio Zentroa

Plaza Nagusia, z.g. 31440 Irunberri (Nafarroa):

+34 948 88 08 74 · cinlumbi@navarra.es

www.focesdenavarra.es